


Iqbalen historia



Iqbalen historia

Jatorrizko izenburua: Storia di Iqbal

Egilea: Francesco d'Adamo

Itzultzailea: Lurdes Auzmendi

Argitaratze urtea: 2005

Argitaletxea: Aizkorri

MIKEL GARMENDIA

Benetan gertatutako historia bat kontatzen zaigu liburu honetan; Iqbal Mashir izeneko mutiko pakistandar bati gertatutakoa. Iqbal hamahiru urterekin hil zuen "tapizen mafiak" Pakistanen bere ugazaba salatzeagatik eta bera bezala esklabutzan lanean ari ziren beste hainbat ume askatzen laguntzeagatik. Egileak berak hitzaurrean esaten digu, gainerako pertsonaiak berak asmatuak direla, baina fikzionatze-lan edo girotze-lan hortaz landa, historia erreala da kontatzen zaiguna. Asmatutako pertsonaia horietako bat izango dugu, hain zuzen, historiaren narratzailea: Fatima neskatoa, Iqbalen lagun min, miresle eta maitalea. Alde horretatik, heroi klasiko bat dugu Iqbal –klasiko adjektiboari inolako esanahi negatiborik eman gabe–.

Hitzaurrean berean aurreratzen digu d'Adamok bakarren batek esan diola historia tristea dela hau. Idazleak, ordea, nahiago omen du honela definitu: askatasuna lortzeko moduari buruzko historia. Nondik begiratzen diogun, noski. Nolanahi ere bi muturrak ageri zaizkigu historia osoan zehar: zapalkuntza, bortizkeria, ankerkeria... batetik, eta, bestetik, maitasuna, samurtasuna, askatasuna –kometaren irudiarekin bikain islatzen diguna d'Adamok–.

Azken solasean aitortzen digu egileak berak ez dituela atsegin gazteentzako eleberri didaktikoak, helburu hezitzaileek helburu literarioari gaina hartzen diotenak. Aitorpen horrekin batera esango digu, ordea, zergatik idatzi duen honelako eleberri bat: "oroimena galtzen ari da". Beraz, lekukotasun bat eman nahi digu, oroimena sendotzeko lekukotasun txiki bat. Eta lekukotasun horrek, gaur egungo egoera krudel bezain benetako bat ikusaraziko digu. Ikusaraziko digu nola pasatzen den zorra gurasoengandik seme-alabengana. Haurren esplotazioa, ez baita –d'Adamok azpimarratzen duenez– herentzia arkaiko bat, gaur egungo fenomeno erreala baizik, egungo lehiakortasunaren eta globalizazioaren ondorio bat.

Benetan gertatutako historien sinesgarritasuna dauka beraz, batetik, eta d'Adamok historia janzteko erabilitako samurtasuna, maitasuna eta finezia, bestetik. Ondo harrapatu du bikoiztasun hori Lurdes Auzmendi itzultzaileak eta hala eman digu euskarazko bertsio samur, ulergarri eta natural bat, benetan eskertzen dena.